



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 4a

129. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/ITP-00038. Interpelazioa, energiaren eta haren etorkizuneko garapenaren arloko politikari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00380. Galdera, dermatosi nodular kutsakorrari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (5. or.).

—11-25/POR-00381. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduak nola baloratu arautzen duen 97/2024 Foru Dekretuaren bi artikuluko baliogabetzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (6. or.).

—11-25/POR-00382. Galdera, departamentuen 2023-2027 aldirako hizkuntza planen betetze-mailari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (6. or.).

—11-25/POR-00383. Galdera, euskarari buruzko kexa bati Foruzaingoak emandako erantzunari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (7. or.).

—11-25/POR-00384. Galdera, Iruñean sumisio kimikopean gertatutako bi bortxaketa-salaketa eraginkortasunez ikertu ez izanagatik Espainiako Estatua kondenatu duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiari buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00385. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroan izandako gertakariei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00386. Galdera, Nafarroan emakumeen segurtasun publikoari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (9. or.).

- 11-25/POR-00387. Galdera, babes komunitarioari buruzko nazioz gaindiko kongresuari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00388. Galdera, hegazti-gripeak Nafarroan duen eraginari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00389. Galdera, zibersegurtasunari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00390. Galdera, Klimaren Nafarroako I. Asteari buruzkoa. Javier Ollo Martínez jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00391. Galdera, musikaren industria sendotzeko tresna gisa atxikitzaile publiko bat ezartzeari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00392. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren kontratazio-mahaiko lehendakariaren jokabideari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00393. Galdera, bularreko minbiziaren baheketen eta azterketen erritmoa berreskuratzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00394. Galdera, Belateko idazkaria Landabengo industria-nabe batera lekualdatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00395. Galdera, enpresa batek Next Generation funtsekin egin beharreko obrak egiteari uko egiteagatik maizterrek kalterik izan ez dezaten Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak aurreikusitako neurriei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00396. Galdera, gure erkidegoan dermatosi nodular kutsakorra sartzea eta zabaltzea prebenitzeko neurriei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00397. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzailea aldatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00398. Galdera, kontratazio publikoan % 6ko erreserba-kuota betetzea lortzeko ekintzei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegi andreak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00400. Galdera, Nafarroako Unibertsitatean ostegunean iragarritako hitzaldiari erantzunez ezker abertzaleko gazteek eragindako liskarrei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00401. Galdera, 2026ko Aurrekontu Orokorretarako aurrekontu-akordioari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00402. Galdera, enpresa mistoa sortzeari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00403. Galdera, 2026rako aurrekontu berriak onesteko akordioari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00404. Galdera, azken bi legegintzaldiotako kriminalitate-tasaren igoerari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).
- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (20. or.).
- 11-25/ELCO-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzea (20. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2025eko urriaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu zuten eta 2025eko urriaren 7ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122. eta 168. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik bost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2025eko azaroaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. eta 168. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00038. Interpelazioa, energiaren eta haren etorkizuneko garapenaren arloko politikari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako interpelazioa, energiaren eta haren etorkizuneko garapenaren arloko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, energiaren eta haren etorkizuneko garapenaren arloko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Horizonte 2030 plangintza elektrikoari buruzko zirriborroa ezagututa, kezkatuta gaude Nafarroako industria zer egoeratan gera daitekeen ikusita, eta, beraz, Nafarroako Gobernuaren energia-arloko aurreikuspenak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00380. Galdera, dermatosi nodular kutsakorrari buruzkoa*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, dermatosi nodular kutsakorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan jakin da beste lurralde batzuetan dermatosi nodular kutsakorraren agerral-

diak sortu direla, bai eta agerraldi horiek zer garapen izan duten ere. Behi-gaixotasun hori ez zaie transmititzen pertsoneri, baina arretarik handiena-rekin zaindu behar dugu.

Nafarroako Gobernuak dagoeneko iragarri du prebentzio-neurriak hartuko dituela; besteak beste, azaroaren 30era bitarte bertan behera geratzen direla udazkeneko ganadu-feria, -lehiaketa eta -azoka guztiak.

Abere-gaixotasun hori gure erkidegoan sartzea eta transmititzea saihesteko prebentzio-neurriak hartzeaz gain, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako abeltzaintza-sektoreari laguntzeko aparteko neurriak hartzea.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Beste lurralde batzuetan dermatosi nodular kutsakorraren agerraldiek izan duten garapena ikusita, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer prebentzio-neurri eta abeltzaintza-sektoreari laguntzeko neurri sustatuko ditu?

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/POR-00381. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduak nola baloratu arautzen duen 97/2024 Foru Dekretuaren bi artikuluko baliogabetzeari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduak nola baloratu arautzen duen 97/2024 Foru Dekretuaren bi artikuluko baliogabetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ahozko galdera honi erantzun diezaion.

Berriki, Nafarroako Auzitegi Nagusiak baliogabetzat jo ditu Nafarroako Administrazio Publikoetan lanpostuak eskuratu eta betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen dituen 97/2024 Foru Dekretuaren bi artikuluko, euskararen balorazioari muga jartzen ziotelako, ingeles, frantses eta alemanaren balorazioari inolako mugarik jartzen ez zitzaizen bitartean.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak baliogabetze horri dagokionez eta zer egiteko asmoa dauka orain?

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/POR-00382. Galdera, departamentuen 2023-2027 aldirako hizkuntza planen betetze-mailari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, departamentuen 2023-2027 aldirako hizkuntza planen betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak ahozko galdera honi erantzun diezaion:

Gobernuan dauden 3 alderdiek adostutako gobernu-akordioaren baitan ("Acuerdo programático para un gobierno de Navarra plural y progresista 2023-2027"), konpromiso hau jaso zen, hizkuntza-politikari dagokionez:

"Continuar con la adaptación de la normativa que regula el uso del euskera para garantizar un tratamiento acorde con la demanda y la realidad sociolingüística del territorio, a la vez que ampare

el uso y conocimiento del euskera por la ciudadanía de forma acorde con los principios de voluntariedad e igualdad de oportunidades. Poniendo en marcha los planes lingüísticos de los diferentes Departamentos para el periodo 2023-2027, tomando como criterio el trabajo realizado durante la legislatura 2019-2023”.

2024 urtean zehar, 2023-2027 aldirako Departamentuetako hizkuntza-planak argitaratu ziren, foru aginduen bidez. Dagoeneko plan horien indaraldiaren erdialdean gaude.

Zein da 2023-2027 aldirako departamentuetako hizkuntza-planen betetze-maila gaur egun?

Iruñean, 2025eko urriaren 27

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/POR-00383. Galdera, euskarari buruzko kexa bati Foruzaingoak emandako erantzunari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, euskarari buruzko kexa bati Foruzaingoak emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Berriki, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak jakinarazi du Nafarroako Foruzaingoak artxibatu egin duela Euskararen Telefonoan erregistratutako kexa bat euskara hutsean idatzita egoteagatik. Aldi berean, salatu du Foruzaingoaren Komunikazio eta Herri Partaidetza Taldeak euskararekiko gutxiespeneko hitz iraingarriak jaurti dituela.

Hizkuntz Eskubideen Behatokia herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek babestera zuzentzen du bere jardura. Euskararen telefonoa Behatokiaren doako zerbitzua da, eskubideen urraketei dagokionez herritarrei eta erakundeei konponbidea ematen laguntzeko.

Zer neurri hartuko ditu Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentuak egoera bidegabe hori konpontzeko eta berriz gerta ez dadin bermatzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/POR-00384. Galdera, Iruñean sumisio kimikopean gertatutako bi bortxaketa-salaketa eraginkortasunez ikertu ez izanagatik Espainiako Estatua kondenatu duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiari buruzkoa

OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako galdera, Iruñean sumisio kimikopean gertatutako bi bortxaketa-salaketa eraginkortasunez ikertu ez izanagatik Espainiako Estatua kondenatu duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Estatua kondenatu du Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko zenbait artikulua urratzeagatik, ez zituelako eraginkortasunez ikertu Iruñean sumisio kimikopean egindako bi bortxaketa-salaketa, frogak poliziaren zaintzapean zeudenean galdu edo manipulatu baitziren.

Zer jarduera egin du edo aurreikusten du Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen barruan, gertaera horiek berriro gertatuko ez direla bermatzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Oihana Gallo San Román

11-25/POR-00385. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroan izandako gertakariei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroan izandako gertakariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Gaurkotasun handiko galdera, 2025eko azaroaren 6ko Osoko Bilkurarako.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria:

Desgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentroan osasun publikoari eta egoiliar bati dago-kien izandako gertakari larri-larriak ikusita, dimisioa emanen duzu?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00386. Galdera, Nafarroan emakumeen segurtasun publikoari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroan emakumeen segurtasun publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2025eko azaroaren 6ko Osoko Bilkurarako galdera arrunta.

Nafarroako Gobernuako lehendakari Chivite andrea:

Nafarroako segurtasunaren arduradun nagusia zaren aldetik, nola ikusten duzu emakumeek Nafarroan bizi duten segurtasun publikoaren egoera?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00387. Galdera, babes komunitarioari buruzko nazioz gaidiko kongresuari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, babes komunitarioari buruzko nazioz gaidiko kongresuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 28an eta 29an, babes komunitarioari buruzko nazioz gaidiko kongresua egin da Tuteran eta Iruñean.

Kontseilari andrea, honako honi buruz erantzutea gustatuko litzaidake: zeintzuk izan dira hartutako ondorioak eta parte-hartzaile guztien artean partekatutako esperientziak?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-25/POR-00388. Galdera, hegazti-gripeak Nafarroan duen eraginari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, hegazti-gripeak Nafarroan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer eragin izaten ari da hegazti-gripea Nafarroan, eta zer neurri hartzen ari dira egoera arintzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-25/POR-00389. Galdera, zibersegurtasunari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, zibersegurtasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urrian, Zibersegurtasunaren Astea egin zen Nafarroan. Zer lan egiten du Gobernuak zibersegurtasunaren arloan?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00390. Galdera, Klimaren Nafarroako I. Asteari buruzkoa*JAVIER OLLO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Ollo Martínez jaunak egindako galdera, Klimaren Nafarroako I. Asteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Javier Ollo Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari José Mari Aierdi Fernán-

dez de Barrena jaunak azaroaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Klima-aldaketa da gure munduko arazo handienetako bat, eta, aldi berean, gure produkzio-sarearen eta gure gizarte-ohituren eraldaketan sakontzera behartzen gaitu.

Hogei bat entitate publikok eta pribatuk Klimaren Nafarroako I. Astearekiko konpromisoa erakutsi dute. Aste hori Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak abian jarri du eta duela gutxi garatu da, sentsibilizazioaren, dibulgazioaren, ezagutzaren eta gizarte-interpelazioaren eremuan klima-larrialdiari elkarrekin erantzuteko ekimen garrantzitsu gisa.

Zer balorazio egiten du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Klimaren Nafarroako I. Asteari buruz eta zeintzuk dira ekimen honek ateratako ondorio garrantzitsuenak?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Ollo Martínez

11-25/POR-00391. Galdera, musikaren industria sendotzeko tresna gisa atxikitzaile publiko bat ezartzeari buruzkoa*IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, musikaren industria sendotzeko tresna gisa atxikitzaile publiko bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol

eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bilbon egiten den musika-industriaren nazioarteko topaketen azken edizioan (BIME), Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak iragarri zuen musika-taldeentzako eta artista hasi berrientzako atxiki-tzaile publiko bat ezartzeko lan egiten hasi dela.

Zer helburu ditu musika-industria (batez ere goraka ari diren taldeekiko oinarria) indartzeko tresna horrek?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/POR-00392. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren kontratazio-mahaiko lehendakariaren jokabideari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren kontratazio-mahaiko lehendakariaren jokabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Polo jaunak adierazi zuen nahiago zuela Belateko tunelak bikoizteko obrak ez zitzala egin Mariezcurrena parte zen ABEEak. Hori entzun ondoren, oraindik defendatzen al duzu Polo jaunak kontratazio-mahaian izandako jokabidea zuzena izan zela?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/POR-00393. Galdera, bularreko minbiziaren baheketen eta azterketen erritmoa berreskuratzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Bularreko minbiziaren baheketen eta azterketen erritmoa berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVIDetik lau urte baino gehiago igaro ondoren, Nafarroan oraindik ez da berreskuratu pandemiaren aurreko bularreko minbiziaren baheketa-
ren eta berrikuspenen erritmoa. Kontseilariak uste du hori onargarria dela?

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/POR-00394. Galdera, Belateko idazkaria Landabengo industria-nabe batera lekualdatzeari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Belateko idazkaria Landabengo industria-nabe batera lekualdatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkeztu du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontserbazio Zerbitzuko zuzendariak urriaren 29an ikerketa-batzordean adierazitakoa ikusita, berresten al duzu Belateko idazkaria Landabengo industria-nabe batera eramateko erabakia ez zela errepresalia bat izan, baizik eta antolaketa-erabaki bat?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/POR-00395. Galdera, enpresa batek Next Generation funtsekin egin beharreko obrak egiteari uko egiteagatik maizterrek kalterik izan ez dezaten Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak aurreikusitako neurriei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, enpresa batek Next Generation funtsekin egin beharreko obrak egiteari uko egiteagatik maizterrek kalterik izan ez dezaten Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak aurreikusitako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaró Garciak azaroaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eraikuntza-enpresa batek egiten ari zen zaharberritze nahiz energia-efizientiako obrak egiten jarraitzeari uko egin izanak zenbait bizilagun-erkidegori eragin dio Nafarroan. Egoera hori kezkarria da, proiektuak Europako Next Generation funtsekin finantzatzen direlako. Funtz horiek exijitzen dute obrak 2026ko ekaina baino lehen amaituta egotea, kostu osoaren zati handi bat estaltzen duten laguntzak jasoko badira.

Departamentuak neurririk aurreikusten al du maizterrei kalterik ez eragiteko eta obrak garaiz eta behar bezala egin ahal izateko?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00396. Galdera, gure erkidegoan dermatosi nodular kutsakorra sartzea eta zabaltzea prebenitzeko neurriei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, gure erkidegoan dermatosi nodular kutsakorra sartzea eta zabaltzea prebenitzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartu eta hartuko ditu gure erkidegoan dermatosi nodular kutsakorra, zeinaren agerraldiak gertatu baitira jada Frantzian eta Gironan, eta hegazti-gripea, Nafarroan jada badagoena, sartzea eta zabaltzea prebenitzeko, bereziki zaintza epidemiologikoari dagokionez?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/POR-00397. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzailea aldatzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzailea aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 6ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Osasuneko kontseilariaren ustez, Nafarroako Osasun Zerbitzuko gerentea aldatuta nola bul-tzatuko da osasungintza Nafarroako Foru Komunitatean?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00398. Galdera, kontratazio publikoan % 6ko erreserba-kuota betetzea lortzeko ekintzei buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, kontratazio publikoan % 6ko erreserba-kuota betetzea lortzeko ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak 2025eko azaroaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua zer ari da egiten kontratazio publikoan % 6ko erreserba-kuota betetzea lortzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-25/POR-00400. Galdera, Nafarroako Unibertsitatean ostegunean iragarritako hitzaldiari erantzunez ezker abertzaleko gazteek eragindako liskarrei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Unibertsitatean ostegunean iragarritako hitzaldiari erantzunez ezker abertzaleko gazteek eragindako liskarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak azaroaren 6ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Zer iritzi du lehendakariak Nafarroako Unibertsitatean ostegunean iragarritako hitzaldiari erantzunez ezker abertzaleko gazteek eragindako liskarrei buruz?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00401. Galdera, 2026ko Aurrekontu Orokorretarako aurrekontu-akordioari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2026ko Aurrekontu Orokorretarako aurrekontu-akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den urriaren 31n, Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu Nafarroak 2026ko Aurrekontu Orokorretarako aurrekontu-akordioa sinatu zuten. Hau da zu buru zaituen gobernuak lortutako zazpigarren akordioa. Zazpi akordio horiei esker, Nafarroak urtero eduki ahal izan ditu aurrekontuak. Guztira, Nafarroak azken hamaika urteotan izan ditu aurrekontuak. Eta hamaika urte dira, halaber, eskuinak aurrekontuak baldintzatu gabe.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du akordio horri buruz?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00402. Galdera, enpresa mistoa sortzeari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, enpresa mistoa sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdoba,

Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak azaroaren 6ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Iazko urtearen amaieran iragarri zen 2025ean enpresa misto bat eratuko zela alokairu ordainerrazeko araubideko etxebizitzak sustatzeko eta eraikitzeko, kapital publikoak eta pribatuak erdi bana eratua, hori guztia gure erkidegoan etxebizitza-parke publikoa al bait lasterren eta berme publiko guztiekin handitzeko helburu nagusiarekin.

Departamentuak zer egutegi darabil gogoan enpresa hori eratzeko?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/POR-00403. Galdera, 2026rako aurrekontu berriak onesteko akordioari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2026rako aurrekontu berriak onesteko akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzendua, 2025eko azaroaren 6ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak 2026rako aurrekontu berriak onesteko akordioari buruz?

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

11-25/POR-00404. Galdera, azken bi legegintzaldiotako kriminalitate-tasaren igoerari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, azken bi legegintzaldiotako kriminalitate-tasaren igoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer gehiago gertatu behar da esku har dezazun azken bi legegintzaldiotako kriminalitate-tasaren igoera onartezinaren aurrean?

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatziparrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko urtarrilaren 15eko 15:00etara arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatziparrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko urtarrilaren 15eko 15:00etara arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko urtarrilaren 15eko 15:00etara arte luzatzea**.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCO-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskubide Sozialetako kontseilariak 2025eko urriaren 28an idazki bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, zeinaren bidez eskatzen baitu berri deuzala Gustavo de Guzmán Muñoz Barrutia patronatukidearen izendapena, edo, hala badagokio, beste pertsona bat izenda dezala, Fundazioaren estatutuen 14.2.b artikulua xedatutakoarekin bat; horren arabera, Nafarroako Parlamentuari dagokio berak izendatu beharreko patronatukideak hautatzea Fundazioaren xedeei lotutako pertsona edo erakundeen eta enpresen, publiko zein pribatuen, artean.

Estatutuen 8.1. artikulua arabera, "Fundazioaren helburua da honako hauek zuzenean kudeatzea, egitea eta egikaritzea:

- Gizarte zerbitzuetako zentroak,
- Babesgabatasuna edo gizarte gatazkako egoerak dituzten adingabe koentzako behaketa eta harrera-zerbitzuak,
- Eguneko zentroa, neurri judizialak ingurune irekian betetzeko zerbitzuaren barruan.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren arretarako zentroak.

– Gizarte zerbitzuen, berdintasunaren, gizarteratzearen eta laneratzearen arloko beste zentro eta zerbitzu batzuk.

Aipatu zerbitzuak eskainiko dira gizarte zerbitzuen, berdintasunaren, gizarteratzearen, laneratzearen, adingabeen babesaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan indarrean dagoen araudian finkatutako baldintzen arabera.

Zerbitzu horiek nagusiki Fundazioak eman beharko ditu, eta ezin izanen ditu hirugarrenen eskutan utzi inongo negozio juridikoren bidez".

Era berean, hautagaitzak Fundazioaren xedeei lotutako pertsonak edo erakunde eta enpresek, publiko edo pribatuek, osatuko dituzte, eta Fundazioaren Estatutuen 14.1 artikuluan ezarritako gaitasunari buruzko betekizunak bete beharko dituzte: "Patronatuko kideak izaten ahalko dira jarduteko gaitasun osoa duten eta kargu publikoetan aritzeko ezgaituta ez dauden pertsona fisikoak.

Pertsona juridikoak Patronatuko kideak izaten ahalko dira, eta horiek ordezkatzeko dituen/dituzten pertsona fisikoa/fisikoak hautatu beharko dute/dituzte, aurreko paragrafoan xedatutakoa betez".

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da hautaketa hori egiteko prozedurarik aurreikusten; beraz, erregelamendu horren 42.1.bederatzigarre-

na artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak hautaketa horri buruzko arauak onets ditzan, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.

Aipatu artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako izendatu beharreko patronatukide bat hautatzeko prozedura hastea.

Bigarrena. Honako arau hauek onestea:

“1. Nafarroako Parlamentuak pertsona bat edo erakunde eta enpresa bat, publiko edo pribatua, hautatuko du, gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatuko kide izan dadin.

2. Talde parlamentarioek, banaka nahiz batera, pertsona batez edo erakunde eta enpresa batez, publiko edo pribatua, osatutako hautagaitzak aurkezten ahalko dituzte, zeinek Fundazioaren Estatutuen 14.1 artikuluan ezarritako gaitasunari buruzko betekizunak bete beharko baitituzte.

3. Talde parlamentarioek hautagaitzak aurkezteko idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari, eta idazki horretan jasota ageriko dira proposatutako hautagaien onarpena eta kargu publikoetarako desgaitua ez egotearen aitorpena.

4. Talde parlamentarioek gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatukide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 15eko 15:00etan bukatuko da.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du proposatutako hautagaiak 2. eta 3. arauetan eskaturiko baldintzak betetzen ote dituzten, eta, jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatukidearen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, isilpeko bozketaren bidez.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak izen bakarra jartzen ahalko du txartelean.

8. Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta boto gehien lortu dituen hautagaia aldarrikatuko du.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte”.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

